

2026. URTEKO SANTA EUFEMIA AZOKAKO TALOEN TXOSNAK JARTZEKO BAIMENAK ENKANTE BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK ETA PLEGU TEKNIKOAK.

1. ENKATEAREN XEDEA.-

Enkatearen gaia hau da: Toki Entitateetako Ondasun Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak betez gero, 2026ko irailaren 16ko Santa Eufemia azokako taloen txosnak (2) jartzeko baimenaren esleipena, ENKANTE PUBLIKO bidez egingo dena.

2. LIZITAZIO PREZIOA.-

Herri erabilerako lurretan postua ipintzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren arabera, herriko jaietan salmenta-postu eta antzeko instalazioen okupazioagatik m²-ko edo zatiko eta eguneko, 9,12 € da. Taloen txosna bat 53 m² izaten direla kontuan izanda, tasa 483,36 €-koa izango litzatekeela eta lizentziaren diru kopurua, 33,77 €-takoa izanik, lizitazio prezioa 517,13 €-koa izango da, Lameran.

Hori horrela, ENKANTE PUBLIKOA, prezio horretatik hasita gorantz egingo da, eta eskaintzarik abantailatsuenari eta Bermeoko Udalari etekinik handiena ekarriko dionari adjudikatuko zaio lehenengo txosna; esleipendunak kokapen bien artean aukeratuko du. Bigarren eskaintza onenari Lamerako bigarren kokapena esleituko zaio.

Eskatzaile batek baimen bakarra lortu ahal du. Hori horrela, nekazaritza ustiapen bakoitzeko eskari bakarra aurkeztu ahal izango da. Eskari bat baino gehiago agertzen bada nekazaritza ustiapen berarekin, kanporatuak izango dira.

3. KONTRATAZIO MAHAIA.-

Kontratazio mahaia kide hauekin osatuko da:

- Gotzon Bareño Duñabeitia jauna, edo bere ordezkoa, Alaine Miruri Muruaga andrea.
- Asier Idoiaga Zabala jauna, edo bere ordezkoa, Alaine Miruri Muruaga andrea.
- Edurne Urrutia Uriarte andrea edo bere ordezkoa, Idurre Basterretxea Altonaga andrea.
- Susana Regidor Lardies andrea edo Iratxe Barrenetxea Aierbe andrea.



CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Idazkaria: Eneko Ateka Arenaza jauna edo bere ordezkoa, Batirtze Ispizua Larrauri andrea.

4. BERMEAK.-

Lehiatzaileek 100 €-ko behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko.

Behin-behineko fidantza adjudikazioa egin ondoren ofizioz itzuliko zaie lizitatzzaileei, esleipendunei izan ezik. Haiei dagokien abonua azoka egin eta ondorengo egunetan itzuliko zaie, esleipendunek eskaera egin eta gero.

Hala ere, behin-behineko bermea atxiki egingo da esleipena egin orduko euren proposamena beste arrazoi barik erretiratzen duten parte hartzaileei ere.

5. ORDAINTZEKO MODUA.-

Adjudikazioaren prezioa Bermeoko Udalari ordainduko zaio 2026ko irailaren 7a baino lehenago. Ordainketa transferentzia bidez egingo da Udalak adierazitako kontu korrontean. Hala egin ezean, baimenari uko egiten diola ulertuko da eta baimen hori hurrengoari esleitzeko proposamena egingo da.

Esleipendunak, behin dirua ordainduta, txosna ez jartzea erabakitzen badu, galdu egingo du diru hori.

6. LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.-

Lizitazioan parte hartu ahal izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek, baldin eta gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta administrazioarekin kontratatzeke inolako debekurik edo bateraezintasunik ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Pertsona juridikoak kontzesioen adjudikaziodunak izan daitezke soilik, baldin eta haien prestazioak estatutuetan edo sorrerako arauetan berezkoak dituzten xede, edo jarduera esparruen barruan badaude. Era berean, enpresaburu indibiduala izanez gero, antolakunde bat izan beharko du, jarduerari modu iraunkorrean dagozkion elementu pertsonal eta materialez hornitua, eta, era berean, kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura duena.

7. PROPOSAMENAK AZTERTZEA ETA AURKEZTEA.-



CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446
Data: 05/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Administrazio klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria espedientearen osatzen duten gainerako agiriekin batera, udal honetako Kultura eta Hezkuntza Sailean egongo dira ikusgai, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Era berean, baldintza administratiboen eta teknikoen agiria Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta kontsultatu ahal izango dira, helbide honetan: <http://bermeo.eus/1470.html>

Proposamenak 10 eguneko epean (naturalak) aurkeztu beharko dira, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, modu hauetako edozeinetan:

- Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>

Edozein kasutan, dokumentazioa gutun azal batean edo artxibo itxi batean aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profilean aurkezten den kasuetan.

Pertsona juridikoen kasuan, derrigorrezkoa izango da proposamenak kontratatzailearen profilean aurkeztea. Beste bi moduak pertsona fisikoentzat baino ez dira.

Proposamena aurkezteak berekin ekarriko du pleguak onartzea. Oro har, ez da proposamenik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofiziala baino lehen edo ondoren.

Eskaintzaileak gutun azal bat edo artxibo bakarra aurkeztuko ditu eta honako hau agertuko da: **"Bermeoko 2026. urteko Santa Eufemia azokako taloen txosna jartzeko proposamena"** lema; lizitatzailearen edo haren ordezkaren izena ere agertuko da.

Barruan:

- 1- Eransten den ZINPEKO AITORPENA digitalki sinatuta, kontratatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla dioena, orri hauetako I. eranskinean ageri den ereduaren arabera.
- 2- Behin-behineko bermea ipini izanaren egiaztagiria.
- 3- ESKAINTZA EKONOMIKOA, digitalki sinatuta, plegu honen amaieran erantsitako proposamen ereduaren arabera (II. eranskina); hartan, taloen txosna ipintzeagatik eskaintzen den diru kopuru konkretua eta zehatza ezarriko da.

Esleipendunak txosna ipini orduko jakinarazi beharko ditu sortu daitezkeen ezigaitasun eta bateraezintasunak.

8. ADJUDIKAZIO FORMA.-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Baimen hauek ENKANTE PUBLIKO bidez esleituko dira eta eskaintza ekonomikorik onuragarrienak hartuko dira kontuan.

Ez dira onartuko lizitazioaren gutxieneko prezioa baino txikiagoak diren proposamenak.

Eskaintzarik altuenak diren bi proposamen berdineko edo gehiago aurkeztu badira, esleipena zozketa bidez erabakiko da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 87. artikuluekin bat etorritik.

9. ESLEITZEKO PROZEDURA.-

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, udaleko Kontratazio Mahaia ekitaldi ez-publikoan bilduko da, eskaerak aztertzeke eta I. eranskinak zabalduko ditu. Akats materialik ikusten badu aurkeztutako agiritan, egoki baderitza, gehienez ere hiru (3) egun naturaleko epea eman ahalko du lizitatuak akats horiek zuzen ditza. Dokumentazioak akats nabarmenak edo konpondu ezin diren akats materialak baditu, proposamena errefusatu du.

Kontratazio mahaiak, hasteko, lizitatuaren dokumentazio orokorraren kalifikazioaren emaitza berri emango du, eta baztertuako lizitatuak eta baztertuako arazoak adieraziko ditu.

Akatsik ez badago, II. eranskinak zabaltzeko ekitaldia publikoa izango da, beste egun batean. Deialdi bat egingo da eta eguna eta ordua kontratugilearen profilean jakinaraziko dira, egiten den eguna baino egun bat lehenago gutxienez.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintza ekonomikoaren dokumentazioa (II. eranskina) aztertuko du eta aurkeztutako proposamenen berri emango da.

Kontratazio mahaiak proposamenak eskaintako prezio abantailatsuen arabera zerrendatu du, eta kontratazio organoari bi eskaintza onuragarrienak egin dutenen aldeko proposamenak egingo dizkio.

Txosnaren kokapena lehenengoa geratu denak aukeratu du. Horrek ez du sortzen inolako eskubiderik proposatutako alde Administrazioaren aurrean, esleipen organoaren akordioaz adjudikatzen ez den bitartean.

Kontratazio organoak egintzen emaitza aktan jasoko da. Akta hori Bermeoko Udalaren kontratatuaren profilean argitaratu da.

10. PROPOSATUTAKO ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.-



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446
Data: 05/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Kontratazio-organoak bi eskaintza onuragarrienak aurkeztu dituzten lizitatzailerei eskatuko dizkie 3 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, dokumentazio hau aurkez dezatela:

A) Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona fisikoa: NANA edo proposamena egiten duenaren ordezkari agiri fede -emaila.
- Pertsona juridikoa: eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza; horietan, jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan inskribatuko dira, pertsona juridiko motaren arabera.

Nolanahi ere, kontratuaren xede diren prestazioak estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten xede edo jarduera eremuaren barruan egon beharko dira.

B) Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak:

- Eskaintza sinatzen duen pertsonak ez badu bere izenean jarduten, edo lizitatzaila sozietate edo pertsona juridiko bat bada, sinatzen duen pertsonak horretarako ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du. Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, ahalorde hori behar bezala inskribatuta egon beharko da dagokion erregistro publikoan, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikatzekoa den araudiaren arabera, inskribatzea nahitaezkoa bada.

C) Dokumentazio gehigarria:

- Nekazaritza ustiatzearen txartela.
- Produktuaren osasun erregistroa, hala badagokio.
- Lizitazio egunerako betebeharrak fiskaletan egunean egotearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria.
- Osasun erregistroak egunean edukitzea.
- Erantzukizun zibilaren aseguruaren kopia.
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta egunean egotea.
- Salduko diren produktuak identifikatzea eta euren jatorria bermatzea.
- Janariak manipulatzeko beharrezko formazioaren egiaztatzea edo, beharrezkoa ez bada, adierazpena.
- Instalazioaren deskribapena eta azalera, Bermeoko Udaleko Kalez kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzen arabera.

Dokumenturen bat ez bada derrigorrez aurkeztu behar, zinpeko aitorpen bat aurkeztu beharko da, dagokion azalpenarekin.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446
Data: 05/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Aipatutako dokumentuak aurkeztu ezean edota aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz bete ezean, esleipenari uko egiten zaiola ulertuko da, Herri Administrazioako Jardunbide Arruntaren Legeko 68. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Kasu horretan, enkanteko emaitzen arabera zehaztutako hurrenkera jarraituta, hurrengo hautagaiari errekerimendua bidaliko zaio gorago adierazitako dokumentuak aurkeztu ditzan.

11. ESLEIPENA.-

Kontratazio organoak 5 egun balioduneko epea izango du kontratua esleitzeko, dokumentazioa jaso eta biharamunetik hasita.

Lizitazioa ezin izango da eman gabe utzi, baldin eta onartzen den eskaintza edo proposamenik badago, pleguan agertzen diren irizpideen arabera.

Lizitatzaile guztiei jakinaraztearekin batera, esleipena kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

Baimenek udalaren eta eskatzailearen artean edukiko dituzte eraginak, eta jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalte barik emango dira. Edozein momentutan ezeztatu ahal izango dira baimenak, interes orokorrak hala eskatzen badu, eta baimendutako epea amaitzean iraungi edo indargabetuko dira.

12. TALOEN TXOSNA JARTZEKO BALDINTZAK.-

1. Udalak taloen txosna bi esleituko ditu 2026. urteko Santa Eufemia azokan, 2026ko irailaren 16an, goizeko 08:00etatik gauera arte. Kokapen bi izango dira, Lameran, udalak adierazitako lekuetan.
2. Txosnaren azpiegitura irailaren 15ean jartzeko aukera egon ahal da, udalarekin adostuta. Baina ezin izango da txosna zabaldu.
3. Talo bakoitzaren gehienezko prezioa 6,50 €-koa izango da (osagai batekin).
4. Taloa arto irinez egindakoa izango da, osorik, eta irailaren 16an egin beharko da.
5. Prezioen zerrenda leku ikusgarrian jarri eta eduki beharko da eta erreklamazio-orriak eduki beharko dira.



CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



6. Taloen txosnetan ipiniko diren elementu idatzi guztiak (prezioak, prezioen zerrendak, oharra, kartelak eta beste edozein elementu idatzi) euskaraz idatzita egongo dira. Euskara eta gaztelania biak erabiltzekotan, euskarari lehentasun osoa emango zaio.
7. Txosnetan egongo diren pertsonak elebidunak izatea gomendatzen da, eta agurrak eta lehenengo berba euskaraz egingo dira.
8. Udalaren Itzulpen Zerbitzuaren laguntza teknikoarekin baliatu ahal izango dira esleipendunak maila idatzirako ezarritako hizkuntza irizpideak betetzeko.

13. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.-

13.1.- LEGE URRATZEAK

Lege-urratzeak arinak, larriak eta oso larri bezala sailkatuko dira.

13.1.1.- Hutsegite arintzat hartuko dira:

- Txosnako langileen portaera txarrak izatea euren arteko hartu-emanetan, bezeroekin eta udaleko langileekin.
- Txosna barrua eta haren alboko eta zabalera bereko pasabide aldea garbi ez izatea.
- Egoki, garbi eta egoera onean jantzita ez egotea.
- Ordutegia ez betetzea.
- Administrazioak edo Azokako Zuzendaritzak emandako agindurik ez betetzea.
- Salgaiaren prezioa ikusgai ez jartzea eta euskaraz ez egotea.
- Aurreko artikuluetan aurreikusi ez den Araudi honetako beste edozein lege-urratze.

13.1.2.- Hutsegite larritzat hartuko dira:

- Taloak egun berean ez egitea.
- Txosna jarduerarako udalak baimendu ez dituen salgaiak saltzea.
- Udaleko ordezkarien jarduna galaraztea.
- Justifikazio barik, saltokiaren buru modura, ez egotea titularra edo Alkatetza-Udalburuak baimendutako pertsona.
- Istiluak edo liskarrak eragitea, dena dela zioa.
- Ahoz edo egitez burututako irainak.
- Saltokiari edo instalazioei kalteak eragitea doluz edo ardura barik.
- Hutsegite arina berregitea.

13.1.3.- Hutsegite oso larritzat hartuko dira:



- Osasun aldetik ondo ez dauden salgaien salmenta, erantzukizuna saltokiaren titularrena denean; dena den, erruaren zati bat dagokion jurisdikzioari egokituko zaio.
- Produktuen ezaugarri, kalitate eta jatorria modu egokian ez identifikatzea, datu hauekin iruzur egitea edota udalak egoki irizten dituen ikuskapenak egiteari uko egin edo oztopatzea, eta eskatutako agiririk ez aurkeztea (produktuen jatorria eta kalitatea bermatzeko).
- Hutsegite larria berriro egitea.

13.2.- LEGEA BERRIRO HAUSTEA ETA BERRERORTZEA

Lege urratze baten errudunaren erantzukizuna arintzen duten egoera da:

- Egitatearen ondorioz interes publiko edo pribatuetan hain kalte larriak eragiteko asmorik ez izatea.

13.3.- PROZEDURA

Zigor prozeduraren tramitazioan, izapidetu duen Administrazioak dagokion legedia aplikatuko du, eta ezinean, Herri Administrazioetako Erregimen Juridiko eta Prozedura Administrazio Bateratuaren Legearen barruan arlo honetaz dauden xedapen arautzaileak eta garatzeko araudia.

13.4.- ESKUMENA ETA ZIGORRAK

Araudi honen lege urratzei dagokien zigorra ipintzea alkateari dagokio.

Espedientea izapidetu eta interesdunari audientzia eman ondoren jarriko dira soilik zigorrak.

Diru kopururik handiena honako hau izango da:

- Hutsegite arinen kasuan: ohartarazpena.
- Hutsegite larrien kasuan: 100 €-rainoko isuna.
- Hutsegite oso larrien kasuan: hurrengo urteko enkantean ezin izango du parte hartu.

14. JURISDIKZIO ESKUDUNA.-

Baimenaren interpretazioari buruz sortutako auziak esleipen organoak erabakiko ditu, eta haren akordioek administrazio bideari amaiera emango diote, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, aipatutako



CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Jurisdikzioko Lege erregulatzailan xedatutakoaren arabera, beren-beregi uko eginda alderdiei legokiekeen beste edozein foruri, aurretik esandakoa bete beharko dela kontuan hartuta, eta Lege aurrean ikusten den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.



CSV: 07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0016DF0800P1V5L0N9H3F2

Sinadurea eta data

SUSANA MERCEDES REGIDOR LARDIES-KULTURA TEKNIKARIA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 10:39:02

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0446

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

